


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,1 gehitu ziren 2013ko irailean aurreko hilaren aldean

2012ko irailaren aldean eraikuntza kostuak %0,2 gutxitu ziren

2013ko irailean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,1 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,2 gutxitu, EUSTATEN datuen arabera.



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 gehitu dira.

Irailean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera berbera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez, bietan %0,2ko gehikuntza aurreko hilaren aldean. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,3 gutxitu dira eta Obra Zibilekoenak %1,7.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Kautxu eta plastikoa (%3,8), Ez-metalezko industria (%2,1) eta Makineria (%2,1), nabarmentzen dira, besteren artean. Urteko prezioetan (2013ko iraila, 2012koaren aldean) murrizketak izan dituzte Petrolioa

fintzearen (%-5,9), Metalurgiaren (%-5,7) eta Energia elektrikoaren eta gasaren (%-3,0) lehengaiek.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO IRAILA (p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m-1	m / m-12	m / abendua
GUZTIRA	103,1	0,1	-0,2	0,7
ERAIKINAK	102,8	0,1	0,0	0,7
OBRA ZIBILA	104,7	0,1	-1,1	0,7
LEHENGAI A	103,0	0,2	-0,5	0,6
ERAIKINAK	102,6	0,2	-0,3	0,6
OBRA ZIBILA	105,0	0,2	-1,7	0,6
LAN-ESKUA	103,6	0,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua